

Izaki gaixoen poz ta gorde-leku,
biotza dardaraz oiuka naukazu:
zure kerizpera nator uste osoz,
estali nagizu errukizko egoz.

Urratu ezkeru maitasun-katea
batez jaiki oi da urrezko alea,
ta erre-ale gaiñez gora doa gogo
zure magalpeko itzal gozoraiño.

Bidea galduak eder dau argia,
nik zuregan daurkit itxaro ezta.
Bizitz-itxasoan uiñak arro zabaltzen?
Laztan amakorrez nozu inguratzen.

Oi zeru-Erregiñ, Amatxo gozoa,
bost orri jaso ta zuridun maoa;
atsegin-jauregi, eskarren jatorri,
oiñazien ez kai, gaitzen gozagarri.

Barnean dabilkit Zureganako sua;
gaur, beintzat, edolan be entzun nagizu:
itun-itxas ontan zakidaz izarra,
etsaiak goitzeko egidazu indarra.

Ume zurtzen Ama, otoi gaur biotzak:
garbi, arren, niri gogoko lausoak.
Maite ba'zindudaz zor yatzun erara!
Ordun bai nengo ke pozetan gogora!

USOA EGAZKA

Norantza, usotxo eder,
ego zuriskaduna,
ortze izpitsu zear,
odeiz gora dabilen
arranua bai zintzan,
egalari azkar?

Goi-aintzak zoratuta,
zerurantz artu dozu
gorazkai leunean.
Ats likitsa darion
lurbira zuretzako
ez jzan urrean.

Laiñoak urraturik,
gotzonen besoetan
oso ameslari,
donien biztokira
zoragarri digozu,
gizonen pozkari.

Eregi, goi-indarrak,
goi-beko Andera da-ta,
zeruko atreak.
Josi goiak abestiz,
ereskin-txindi gozoz
donoki atreak.

Leku, gogo goitarrak;
Jainkoaren Ama baita
eder bikaiñena,
izar-buruntzaz bekoki,
lerden, nagusikiro,
datorkizuena.

Baiña, usotxo, zu gora
eta ludikuok zer
zure iduri gabe?
Zu urrinduz gero, ene!,
illun lezaratuta,
argirik eztabe.

Bizitz-mendiak barna
eskar-apurrak an-or
sasitzan galduta,
bide ez-ezaun biurriz
gaixo uts-utsok nora jo
Zuk lagunge txixta?

Ez; itxaro-argiak
dizdiz begi emaro,
eguzkik lez goizez:
Miren, uso goi-zale,
amatxo amultsu dot,
maite nau biotzez.

Ez, oi!, ezta amarik bein
semeagaz aitzu;
Miren'ek be eztausku iñoiz
maiterik ukatu.

GEZIZ ZAURITUA

«O caritatis victima!»
(Hymn. of. S. Teresiae)

Oi maitasun! Jainko, su, onaren iturri,
ekaitz osteko ostadar, ametsen joan-irri,
bizitz olerkiaren lenengo neurtitza,
zu gabe osin illun litzake sortitza.
Garra biztu oi dozu barrengo muiñean,
ta irri leunak loratu ezpanen gaiñean.

Jazoa

Laiño gardenpean
zerbait egazka...
Ni, txepel antzera,
berari soka.

Urtzi'k bidalia,
zerutarra antzez;
suduna dirudi
gorputz egalez.

Izpizko estuntza
dakar buruan,
eguzkiak letxe
goiz alaitsuan.

Arpegiz irrikoi,
makoa eskuz,
bera dagi egaz
goia zeartuz.